

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua

UPV/EHUren INKLUSIO PLANAREN BALORAZIOA 2012-2017

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua

Ikasleen eta Enplegarritasunaren Errektoreordetza

www.ehu.eus/discapacidad


Aurkibidea

1. Sarrera	2
2. Desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen bilakaera, II. Inklusio Plana indarrean egon den bitartean.	4
2.1. Desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle motak eta haien ezaugarriak	4
2.2. Desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen bilakaera	5
2.3. Desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen premiei buruzko datuak	12
3. Jarduera programen balorazioa	15
3.1. Informazio, aholkularitza eta orientazio ardatza	15
3.2. Aukera berdintasun ardatza	20
3.3. Prestakuntza eta sentsibilizazio ardatza	22
3.4. Irisgarritasun unibertsaleko ardatza	25
4. Balorazio orokorra	27
4.1. Gaur egungo egoeraren diagnostika	28

1. Sarrera

2012. urtean, II. Inklusio Planaren onarpenak ekarri zuen, alde batetik, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen arreta indartzea, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren bidez, eta, bestetik, aukera berdintasunari bultzada bat ematea, planean ezarritako ardatzen eta programen bidez.

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak (EPZ) bere organigrama indartu du, campus bakoitzean unitate bat edukita, non lanean baitaude Desgaitasun gaien teknikari arduradun bat, hiru orientazio teknikari eta administrari laguntzaile bat. Horrez gain, ikasleei laguntzeko langileak ditu: mugikortasun urria duten ikasleen hezkuntzan laguntzeko teknikari espezialistak eta zeinuen hizkuntza interpreteak, ikasleei gorrei zerbitzua emateko. Langile hauen kopurua ikasturte bakoitzean aldatzen da, zerbitzu hauen beharra duten ikasle kopuruaren arabera. Plana indarrean egon den bitartean, lanpostuei dagokionez, hezkuntza laguntzarako teknikari espezialista bi plaza eta zeinuen hizkuntza interprete teknikariko beste bi plaza finkatu dira plaza huts moduan. Bestalde, UPV/EHU-n burutu diren hautapen prozesuek, bai orientazio teknikarien, hezkuntza laguntzaile espezialisten eta zeinu hizkuntza interpreteen lan poltsak edukitzeko aukera eman digute.



UPV/EHUko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren organigrama.

II. Inklusio Plana hainbat jarduera programak osatutako lau ardatz estrategikoetan egituratzen zen:

- Informazio, aholkularitza eta orientazio ardatza.
 - o Desgaitasunak dituzten pertsonen arretarako programa, unibertsitatean sartzeko.
 - o Desgaitasunak dituzten ikasle sartu berrientzako harrera programa.
 - o Desgaitasunak dituzten ikasleentzako arreta programa, unibertsitatean dauden bitartean.
 - o Laneratze programa.
- Aukera berdintasun ardatza.
 - o Giza baliabideak kudeatzeko programa
 - o Baliabide teknikoak kudeatzeko programa

- Prestakuntza eta sentsibilizazio ardatza.
 - o Sentsibilizazio programa
 - o Prestakuntza programa
- Irisgarritasun unibertsaleko ardatza
 - o Irisgarritasun eskaerei erantzuteko programa
 - o Arkitektura eta komunikazio irisgarritasunerako programa

Plan horretan, ardatz bakoitzean (Informazio, Aholkularitza eta Orientazioa; Aukera Berdintasuna; Sentsibilizazioa eta Prestakuntza; Irisgarritasun Unibertsala) finkatutako programetarako helburu eta jarduera espezifiko batzuk zehaztu ziren, baita horien betetze maila ebaluatzeko hainbat adierazle ere. Ardatz bakoitzaren adierazleen datuak baliagarriak izan zaizkigu dokumentu honetan aurkezten den planaren balorazioa egiteko.

II. Inklusio Planaren helburu orokorrak honela laburbildu ditzakegu:

- **Desgaitasunak dituzten ikasleen beharrei erantzutea unibertsitatera sartzen, ikasketak egiten eta erabat parte hartzen laguntzeko, ikasketa plan berrien testuinguruan.** Helburu horiek, oro har, planaren bi ardatz estrategikoren bidez bete dira: Informazio, Aholkularitza eta Orientazio ardatza, eta Aukera Berdintasunen ardatza. Lehenengoaren programen bidez, ezgaitasunak dituzten ikasleen beharrei erantzun zaie bai unibertsitatera sartzeko fasean, bai ikasle berrien harreran, bai unibertsitatean egon diren bitartean. Bigarren ardatzaren programen bidez, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntza langileak eta baliabide teknikoak jarri dira, haien aukera berdintasuna ikasketetan eta partaidetzan bermatzeko; horretarako, lankidetzan jardun dugu unibertsitate estamentuekin eta kanpoko nahiz barruko erakunde eta entitateekin.
- **Desgaitasunak dituzten ikasleei eta haien beharrak asetzearen arloari lotutako eskubideei, araudiei, integrazio politikei eta prozedurei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea unibertsitateko hideoi.** Helburu horiei dagokienez, desgaitasunak dituzten ikasleak unibertsitatean dauden bitartean artatzeko programaren bidez, premia horiei erantzuteko aholkularitza eta laguntza eman zaie unibertsitate ikastegiei eta curriculumaren egokitzapenak aplikatzeko aholkularitza eman zaie irakasleei, batik bat. Sentsibilizazio eta Prestakuntza ardatzaren bidez, informazioa eta tresnak eman zaizkie unibertsitate kolektiboari, ikasgeletan dagoen dibertsitatea eta desgaitasunak nahiz hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarriak, zailtasunak eta ahalmenak hobeto ezagut ditzaten eta, horrela, gizarte hesiak ezabatzen lagun dezaten. Nabarmentzekoa da "Hezkuntza premia bereziak dituzten UPV/EHUko ikasleei Aukera Berdintasuna Bermatzeko Arautegia" argitaratu izana. Arautegi horrek informazioa ematen du hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruz, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren jarduera protokoloari buruz, eta baliabideen eskaerei nahiz erreklamazio prozedurari buruz.
- **UPV/EHUko zerbitzuak, unibertsitate ikasketak, espazioak eta informazioa eskuragarri daudela bermatzea.** Informazio, Aholkularitza eta Orientazio



UPV/EHUko irakasle Monike Gezuraga bere sentsibilizazio jarduerari buruz hizketan, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren bideo batean (2016).

ardatzaren eta Aukera Berdintasunen ardatzaren programen bidez, unibertsitate ikasketetara sartzeko erraztasunak eman dira, eta Irisgarritasun Unibertsaleko ardatzaren programek, berriz, ingurune fisikoaren irisgarritasuna eta informazioaren eskuragarritasuna hobetu dute.

- **Desgaitasunak dituzten ikasleak laneratzen laguntzea** Informazio, Aholkularitza eta Orientazio ardatzaren barruan kokatutako laneratzeko programa espezifiko baten bidez.

2. Desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen bilakaera, II. Inklusio Plana indarrean egon den bitartean.

2.1. Desgaitasun motak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarriak

Aniztasuna errealitate bat da unibertsitateko ikasgeletan, eta haren onarpenak irakaskuntza inklusibo bat garatzeko abiapuntua izan behar du; irakaskuntza bat, non pertsona guztientzako ingurune irisgarri eta eskuragarri bat sortu nahi den. Ingurune fisiko bat ez ezik, informazioa, irakaskuntza metodologiak, ebaluazioa eta abar eskura jarriko dituen ingurune bat ere izango da, aintzat hartuko dituen, oro har, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta campusetako unibertsitate bizitzaren alderdi guzti-guztiak.

Desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak sortzen dituzten egoerak UPV/EHU, lau kategoriatan biltzen dira:

- Ikusmen desgaitasuna
- Entzumen desgaitasuna
- Motore desgaitasuna
- Bestelako desgaitasunak

Bestelako desgaitasunen kategoriaren barruan, haien ezaugarriak direla eta, aurreko kategorietan sar ezin daitezkeen guztiak daude, hala nola gaixotasun organikoak, nahasmendu psikikoak, ikasteko zailtasunak (irakurtzeko, idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko edo arreta jartzeko zailtasunak dauzkaten ikasle talde heterogeneoari egiten dio erreferentzia), arretagabeziaren eta hiperaktibitatearen nahasteak (AGNH) eta "sailkatu gabeko" beste batzuk, esate baterako, gaixotasun arraroak.

Garrantzitsua da nabarmentzea, bestalde, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak 2015eko



Fisioterapiako Graduoko Gentzane Ortiz ikaslea sentsibilizazio jarduerari buruz hizketan, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren bideo batean (2016)

apirilaren 30ean onartutako "Hezkuntza premia bereziak dituzten UPV/EHUko ikasleei Aukera Berdintasuna Bermatzeko Arautegiak" zera esaten duela: UPV/EHU arreta eskainiko zaie desgaitasuna dutenei eta desgaitasun aitortua ez duten beste egoera batzuei (dislexia, AGNH, hainbat gaixotasun organiko, eratorritako egoerak -istripuak- eta aldi baterako egoerak) beti ere behar bezala egiaztatzen badira.

2.2. Desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen bilakaera


Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuan desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituztela adierazi duten ikasle erroldatuen kopurua 278koa zen 2012-2013 ikasturtean, eta 309ra iritsi da UPV/EHUren II. Inklusio Planaren (2012-2017) amaieran; indarraldiaren azken bi ikasturteetan ikasle kopuruaren igoera nabarmena eman da. Garrantzitsua da adieraztea ere, zerbitzuan erroldatuta dauden eta haren erabiltzaile diren ikasleez gainera, UPV/EHU badirela desgaitasunak dituzten ikasle gehiago matrikulatuta. Horiek ordea, ez daude plan honetan sartuta, ez dutelako egokitzapenik eskatu, ezta ere laguntzarik, baina tasak ordaintzeko salbuetsita daude desgaitasun egoeratik.

2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan, jaitsiera bat eman zen erroldatutako ikasleen kopuruan, 261 ikaslera iritsi arte, aldi osoaren kopururik txikiena. Hurrengo bi ikasturteetan, ordea, erroldatutako ikasleen kopuruak gora egin zuen berriro, eta 2016-2017 ikasturtean 309 izatera iritsi ziren. (1. taula) (1. grafikoa).

Desgaitasunak dituzten ikasle erroldatuen bilakaera 2012-2017n

Ikasturtea	Sexua	Desgaitasuna				Guztira sexuaren arabera	GUZTIRA
		IKUSMENA	ENTZUMENA	MOTORIROA	BESTELAKOAK		
12/13	E	15	17	38	82	152	278
	G	10	6	41	69	126	
13/14	E	18	15	40	76	149	267
	G	10	7	31	70	118	
14/15	E	15	14	33	72	134	261
	G	10	10	28	79	127	
15/16	E	16	14	35	74	139	282
	G	6	15	31	91	143	
16/17	E	16	15	26	93	150	309
	G	7	11	37	104	159	


1. taula. Desgaitasunak dituzten ikasle erroldatuen bilakaera, sexuaren eta ezgaitasun motaren arabera (2012-2017)



1. grafikoa. Desgaitasunak dituzten ikasle erroldatuen kopuru osoaren bilakaera.

Desgaitasun motei dagokienez, kopuruak egonkor mantendu dira, aldaketa txikiekin, eta "bestelakoak" atalean aldiz ikasleen kopurua askoz ere handiagoa da, atal horretan ikasturte guztietan orotara erroldatutako ikasleen %50etik gora biltzen baita (2. grafikoa).

Generoari dagokionez, datuek adierazten digutenez, emakumeak gehiengo ziren lehen hiru mailatan, eta azken bi ikasturteetan, berriz, gizonetakoek izan dute gehiengo txiki bat.



2. grafikoa. Desgaitasunak dituzten eta ezgaitasun motaren arabera errolatuta dauden ikasleen bilakaera

Erroldaren gehiengo osatzen duen "Bestelakoak" atalaren bilakaera aztertzen badugu, kategoria horretan errolatutako ikasleen kopuru osoak igoera progresibo nabarmena izan duela ikus dezakegu. Atalaren barne eraketari dagokionez, "gaixotasun organikoa" azpitaldea arian-arian garrantzia galtzen joan den bitartean, "desgaitasun psikikoa" eta "ikasteko zailtasun espezifikoak" azpitaldeak nagusitzen joan dira, argi eta garbi. Nabarmenezkoa da azken azpitalde horren igoera handia; izan ere, 2012-2013 ikasturtean atal osoaren %20,66 zen, eta 2016-2017 ikasturtean %51,27 izatera iritsi da (2. taula).

"Bestelako desgaitasunak" kategoriaren banaketa 2012-2017n

Ikasturtea	Sexua	Gaixotasun organikoa	Desgaitasun psikikoa	Ikasteko zailtasun espezifikoak	Sailkatu gabekoak	Guztira, sexuaren arabera	Guztira
12/13	E	44	14	16	8	82	150
	G	30	17	15	6	68	
13/14	E	34	17	21	4	76	146
	G	29	17	17	7	70	
14/15	E	25	16	27	4	72	151
	G	20	20	32	7	79	
15/16	E	22	16	33	3	74	165
	G	22	22	43	4	91	
16/17	E	24	24	43	2	93	197
	G	18	25	58	3	104	


2. taula. Bestelako desgaitasunen kategoriaren banaketa

Ikasle egresatuei dagokienez, plana indarrean egon den bitartean, 207 ikasle titulatu dira UPV/EHU; 33 ikasleko kopururik txikiena 2014-2015 ikasturtean eman zen, eta handiena, 52 ikaslekoa, 2012-2013 ikasturtean. Generoari erreparatuta, aldi honetan emakume gehiago egresatu dira, egresatu guztien %62,80ra iritsi baitira (3. taula) (3. grafikoa).

Ikasle egresatu guztien kopuruaren bilakaera 2012-2017n

Ikasturtea	Sexua	IKUSMENA	ENTZUMENA	MOTOREA	BESTELAKOAK	Guztira sexuaren arabera	GUZTIRA
12/13	E	1	3	9	20	33	52
	G	1	1	10	7	19	
13/14	E	4	4	7	19	34	51
	G	1	2	4	10	17	
14/15	E	1	3	3	14	21	33
	G	1	0	2	9	12	
15/16	E	3	4	8	10	25	38
	G	0	0	4	8	12	
16/17	E	4	2	6	7	19	36
	G	0	3	6	8	17	
GUZTIRA		16	22	59	112	209	210

3.taula. Ikasle egresatu errolatu kopuru osoaren bilakaera, sexuaren eta desgaitasun motaren arabera 2012-2017n



3. grafikoa. desgaitasunak dituzten ikasle egresatu errolatuen kopuruaren bilakaera.


Arabako Campusean, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle egresatuak egon dira 21 titulutan. Aipagarrienak, Historiako lizentzian izandako 5 egresatuak eta Farmazia ikasketetan izandako 3ak nabarmendu ditzakegu (4. taula).

Bizkaiko Campusean, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek 61 titulutan amaitu dituzte ikasketak; horien artean, aipagarriak dira Erizaintzako Graduko 14 ikasleak eta Medikuntzako eta Arte Ederretako lizentzian eta Arteko, Zuzenbideko eta Haur Hezkuntzako graduetan izandako bosna tituludunak. (5. taula).

Gipuzkoako Campusean, ikasleek 36 titulutan eskuratu dituzte tituluak; Erizaintzako Gradua eta Psikologiako lizentzian izandako 6 egresatuak nabarmendu ditzakegu, baita Kriminologiako Graduan eta Zuzenbidekoan titulua lortutako 4 ikasleak ere. (6. taula).

Ikasle egresatuen bilakaera Arabako Campusean						
Titulua	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	Guztira
Gizarte Langintzako Diploma						0
Gizarte Langintzako Gradua		2				2
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua		1				1
Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza	1					1
Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Lizentzia	1			1		2
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentzia	1			1		2
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua					2	2
Farmaziako Lizentzia		2		1		3
Filologiako Gradua			1		1	2
Ingeles Ikasketetako Gradua			1			1
Euskal Filologiako Lizentzia	1					1
Historiako Lizentzia	3	2				5
Artearen Historiako Lizentzia		1				1
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua	1	1				2
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua		1				1
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua				1		1
Haur Hezkuntzako Irakasle ikasketak			1			1
Lehen Hezkuntzako Irakasle ikasketak						0
Gizarte Langintzako Gradua				1		1
Graduondokoa: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak Masterra						0
Esperientzia Gelen ikasketak		1		1		2
Guztira	8	11	3	6	3	31

4 taula. Erroldatutako ikasle egresatuen bilakaera Arabako Campusean, tituluaren arabera. (2012-2017)



UPV/EHUko ikasle bat, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan (Leioa) 2015eko abenduaren 2an unibertsitate inklusiboari buruz egindako saioan parte hartzen.

Ikasle egresatuen bilakaera Bizkaiko Campusean						
Titulua	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	Guztira
Enpresa Zientzietako Diploma	1	1				2
Gizarteko Hezkuntzako Diploma		1				1
Gizarte Hezkuntzako Gradua				1		1
Erizaintzako Diploma						0
Erizaintzako Gradua	3	4	4	2	1	14
Industria Ingeniaritza		1				1
Meatzeen Ingeniaritza Teknikoa. Meatzeen Ustiapena	1					1
Ingeniaritza Zibileko Gradua			1			1
Telekomunikazioaren Ingeniaritza Teknikoa	1					1
Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua		1			2	3
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua		1				1
Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua				1		1
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua		1		1		2
Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza		1				1
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentzia			1			1
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua			3			3
Negozioen Kudeaketako Gradua	2	1				3
Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua		1				1
Marketineko Gradua					1	1
Arte Ederretako Lizentzia	3	2				5
Arteko Gradua			2	2	1	5
Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua	1		1	1		3
Sorkuntza eta Diseinuko Gradua					1	1
Kimikako Lizentzia						0
Ingurumen Zientzietako Lizentzia						0
Ikus-entzunezko Komunikazioko Lizentzia	2					2
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua		1				1
Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua				1		1
Zuzenbideko Lizentzia	2	1	1			4
Zuzenbideko Gradua			2	2	1	5
Ekonomiako Lizentzia			1			1
Ekonomiako Gradua		2				2

Biologiako Gradua				1		1
Geologiako Gradua					2	2
Fisikako Gradua	1			1		2
Matematikako Lizentzia	1					1
Matematikako Gradua					1	1
Medikuntzako Lizentzia	1	1	3			5
Medikuntzako Gradua				1	2	3
Odontologiako Lizentzia		1	1			2
Fisioterapiako Gradua					1	1
Kazetaritzako Lizentzia	1	2				3
Kazetaritzako Gradua			2		2	4
Publizitate eta Harreman Publikoetako	2					2
Publizitateko eta Harreman Publikoetako					1	1
Soziologiako Lizentzia	1					1
Soziologiako Gradua				1		1
Haur Hezkuntzako Irakasle ikasketak						0
Haur Hezkuntzako Gradua		3			2	5
Lehen Hezkuntzako Irakasle ikasketak						0
Lehen Hezkuntzako Gradua				1		1
Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua		2		1		3
Gratuondokoa: Ikasketa Feministak eta Generokoak	1					1
Gratuondokoa: Finantzak eta Finantza Zuzendaritza	1					1
Gratuondokoa: Autonomia Pertsonala Areagotzeko Teknologia	1		1			2
Gratuondokoa: Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Unibertsitate Masterra		1			1	2
Gratuondokoa: Eraikuntzaren Ingeniaritza Unibertsitate Masterra			1			1
Gratuondokoa: Ingeniaritza Mekanikoa Unibertsitate Masterra				1		1
Gratuondokoa: Abokatutzako Unibertsitate Masterra					1	1
Gratuondokoa: Ondarearen Gestioa eta Banka Pribatua Unibertsitate Espezialistako Titulua	1					1
Gratuondokoa: Nazioartekotzea Enpresa Arloan Unibertsitate Espezialistako Titulua			1			1
Guztira	27	29	25	18	20	119

5. taula. Erroldatutako ikasle egresatuen bilakaera Bizkaiko Campusean, tituluaren arabera (2012-2017).

Ikasle egresatuen bilakaera Gipuzkoako Campusean						
Titulua	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	Guztira
Arkitektura (2003ko plana)		1		2		3
Arkitektura Teknikoa						0
Arkitekturaren Oinarrietako Gradua			1			1
Enpresa Zientzietako Diploma						0
Gizarte Hezkuntzako Diploma						0
Gizarte Hezkuntzako Gradua	1	1	1			3
Erizaintzako Gradua	1	1		1	2	5
Informatikako Ingeniaritza		1			1	2
Industria Ingeniaritza Teknikoa Mekanika	1				1	2
Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa	1					1
Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua			1			1
Gizarte eta Kultura Antropologiako Lizentzia						0
Gizarte Antropologiako Gradua		1				1
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentzia	1					1
Zuzenbideko Lizentzia						0
Zuzenbideko Gradua		1		1	2	4
Kriminologiako Gradua		2		1	1	4
Filosofiako Lizentzia	1	1				2
Pedagogiako Lizentzia	1			1		2
Pedagogiako Gradua					1	1
Psikologiako Lizentzia	1	1		4		6
Psikologiako Gradua	1		2			3
Psikopedagogiako Lizentzia						0
Kimikako Lizentzia		1				1
Kimikako Gradua					1	1
Lehen Hezkuntzako Irakasle ikasketak					1	1
Hezkuntza Bereziko Irakasle ikasketak	2					2
Haur Hezkuntzako Gradua				1		1
Atzerriko Hizkuntzako Irakaslea (euskaraz soilik)						0
Gratuondokoa: Filosofia, Zientzia eta Baloiak Masterra	1					1
Gratuondokoa: Psikologiako Masterra: Gizabanakoa, Taldea, Antolamendua	1					1
Gratuondokoa: Gizarte Antropologiako Unibertsitate Masterra				1		1

Graduondokoa: Autonomia Pertsonala Areagotzeko Teknologia Masterra	1		1			2
Graduondokoa: Osasun Psikologia Orokorreko Unibertsitate Masterra					1	1
Graduondokoa: Esperientzia Traumatikoetako Biktimei Laguntzea Berezko Titulua	1					1
Esperientzia Gelen ikasketak	2					2
Guztira	17	11	6	12	11	57

6. taula. Erroldatutako ikasle egresatuen bilakaera Gipuzkoako Campusean, tituluen arabera (2012-2017).

2.3. Desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen premiei buruzko datuak

Planaren indarraldian, 7388 jarduera kudeatu dira, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituen ikasleei zerbitzua emateko. Unibertsitatean artatutako premia bereziak zazpi eskuhartze arlotan sailkatzen dira:

Irakaskuntza:

Arlo honetan honako premia hauek daude: apunteak hartzeko laguntza, lanak egiteko laguntzak (tresna tifloteknikoak, bitarteko optikoak, ordenagailua, transkripzioak), testu erabilerrazak (letra tipoa eta tamaina, espazioak, grafikoak...), curriculumerako egokitzapena, lanak egiteko denbora gehiago ematea, irakasleentzako txostenak (ikasleen premiak eta jardunbide egokiak jasotzen dituenak), kanpo praktiken egokitzapena eta ikus-entzunezko materialaren egokitzapena.

Aldi honetan guztian, 2416 jarduera kudeatu dira guztira; horien artean nabarmentzen dira, irakasleentzako txostenak 1247 jarduera, ikus-entzunezko materialaren egokitzapena 381 jarduera eta lanak egiteko denbora gehiago emateko 380 jarduera. (7. taula).

Desgaitasunak dituzten ikasleen premien bilakaera irakaskuntzan	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	GUZTIR A
Apunteak hartzeko laguntza	35	51	41	41	38	206
Apunteak hartzeko eta lanak egiteko euskarriak (aparatu tifloteknikoak, bitarteko optikoak, ordenagailuak, audio)	13	16	16	9	8	62
Testu erabilerrazak (letra mota eta tamaina, espazioak, grafikoak...)	25	24	24	20	33	126
Curriculumerako egokitzapena	0	0	0	0	4	4
Lanak egiteko denbora gehiago ematea	54	58	63	90	115	380
Irakasleentzako txostenak	211	215	235	272	314	1247
Kanpo praktiken egokitzapena	0	1	3	0	6	10
Ikus-entzunezko materialaren egokitzapena	0	55	54	81	191	381
Guztira	338	420	436	513	709	2416

7. taula. Erroldatutako ikasleen premien bilakaera, irakaskuntzaren arloan

Azterketak:

Arlo honetan honako premia hauek daude: denbora gehiago ematea, testu erabilerrazak (letra mota eta tamaina, espazioak, grafikoak...), baliabide teknikoak (software egokituak, tresna tifloteknikoak, bitarteko optikoak, ordenagailuak), altzari egokituak, ezgaitasunari buruzko informazioa irakasleentzat, transkripzioa, beste ikasgela bat, hasiera eta amaierako irakurketa, eta eserlekua gordetzea.

Guztira 3661 jarduera izapidetu dira. Horien artean, hauek nabarmendu daitezke: denbora gehiago emateko 1372 jarduera, irakasleei ezgaitasunari buruzko informazioa emateko 1125 jarduera, eta testu erabilerrazak izateko 201 jarduera. (8. taula).

Desgaitasunak dituzten ikasleen premien bilakaera azterketetan	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	GUZTIRA
Denbora gehiago ematea	225	191	255	326	375	1372
Testu erabilerrazak (letra mota eta tamaina, espazioak, grafikoak...)	50	32	38	42	39	201
Baliabide teknikoak (software egokituak, aparatu tifloteknikoak, bitarteko optikoak, ordenagailua)	20	26	48	42	58	194
Altzari egokituak	28	18	17	24	30	117
Irakasleentzako txostenak	167	148	204	278	328	1125
Transkripzioa	6	11	17	16	35	85
Irisgarritasun arazorik gabeko ikasgela	31	29	22	31	35	148
Beste ikasgela bat	11	16	21	25	47	120
Hasierako edo/eta amaierako irakurketa	15	15	29	38	54	151
Eserleku erreserbatua	15	21	30	33	49	148
Guztira	568	507	681	855	1050	3661

8. taula. Ikasle erroldatuen premien bilakaera, azterketen arloan

Orientazioa:

Arlo honetan honako premia hauek daude: ikasle sartu berrien orientazioa, ikaskideak informatzea, ikasketen plangintzarako laguntza, lan orientazioa, eta mugikortasun programetako ikasleentzako orientazioa.

Guztira, 439 jarduera izapidetu dira, eta honako hauek nabarmendu daitezke: ikasle sartu berriak orientatzeko 406 jarduera, eta ikasketen planifikazioan laguntzeko 25 jarduera. (9. taula).

Desgaitasunak dituzten ikasleen premien bilakaera orientazioan	12/13	13-14	14/15	15/16	16/17	GUZTIR A
Ikasle berrientzako orientazioa	80	83	74	79	90	406
Ikaskideentzako informazioa	0	1	0	1	0	2
Ikasketen plangintza egiteko laguntza	3	3	5	7	7	25
Lan orientazioa	0	3	0	0	0	3
Mugikortasun programetako ikasleentzako orientazioa	0	0	0	1	2	3
Guztira	83	90	79	88	99	439

9. taula. Ikasle erroldatuen premien bilakaera, orientazio arloan

Beste batzuk:

Arlo honetan, alergiak, jakien intolerantziak edo dieta berezia eskatzen duten beste gaixotasun batzuk dituzten ikasleentzako menu alternatiboa izatearen beharra sartzen da. Guztira, 8 jarduera kudeatu dira. (10. taula).

Desgaitasunak dituzten ikasleen premien bilakaera, beste batzuen arloan	12/13	13-14	14/15	15/16	16/17	GUZTIR A
Beste menu batzuk	4	4	0	0	0	8
Guztira	4	4	0	0	0	8

10. taula. Ikasle erroldatuen premien bilakaera, *beste batzuen* arloan 2012-2017n

Giza baliabideak:

Arlo honetan honako premia hauek daude: Hezkuntza Laguntzako Espezialista (irakaskuntza, azterketak eta tutoretzak), Zeinu Hizkuntzako Interpretea (irakaskuntza, azterketak eta tutoretzak), ikasle boluntarioak, tutorea, unean uneko Hezkuntza laguntzako espezialista (azterketak, komuna...), unean uneko Zeinu Hizkuntzako Interpretea (hitzaldiak, kongresuak).

Aldi honetan, 347 jarduera kudeatu dira orotara, eta horien artean nabarmentzen dira ikasle boluntarioen 169 jarduera, unean-uneko Hezkuntza Laguntzako Espezialisten (azterketa, komuna...) 92 jarduera, Zeinu Hizkuntzako Interpreteen (irakaskuntza, azterketak eta tutoretzak) 31 jarduera, eta tutoretzei lotutako 27 jarduera. (11. taula).

Desgaitasunak dituzten ikasleen premien bilakaera, giza baliabideen arloan	12/13	13/14	14/15	15/16	16/17	GUZTIR A
Hezkuntza laguntzako espezialista (irakaskuntza, azterketak eta tutoretzak)	3	4	5	4	5	21
Zeinu hizkuntzako interpretea (irakaskuntza, azterketak eta tutoretzak)	3	4	6	12	6	31
Ikasle boluntarioak	13	52	37	37	30	169
Tutorea	0	0	4	8	15	27
Unean uneko Hezkuntza laguntzako espezialista (azterketak, komuna, laborategiak...)	2	8	22	27	33	92
Unean uneko Zeinu Hizkuntzako interpretea (hitzaldiak, kongresuak...)	1	1	0	0	1	3
Beste batzuk	0	0	1	0	3	4
Guztira	22	69	75	88	93	347

11. taula. Ikasle erroldatuen premien bilakaera, giza baliabideen arloan

Baliabide teknikoak:

Arlo honetan laguntza teknikoen beharrari erreparatzen zaio: software egokitua (zoom-text, Jaws), FM igorgailua...eta bestelakoak, guztira 68 jarduera kudeatu dira (12. taula).

Desgaitasunak dituzten ikasleen premien bilakaera, baliabide teknikoen arloan	12/1 3	13/1 4	14/1 5	15/1 6	16/1 7	GUZTIR A
Laguntza teknikoak: software egokitua (Zoom-text, Jaws...), FM igorgailua...	11	10	15	19	13	68
Guztira	11	10	15	19	13	68

12. taula. Ikasle erroldatuen premien bilakaera, baliabide teknikoen arloan

Irisgarritasuna:

Arlo honetan honako premia hauek daude: motore urritasuna duten ikasleentzako garraio beka egokitua, espazioen egokitzapena (sarrerak, ikasgelak, korridoreak, komuna, igogailuak...), altzarien egokitzea, aparkaleku erresebatuen plazak, unibertsitateko egoitza egokituak, ikusmen baxua duten ikasleentzako orientazio espaziala eta ebakuazio neurri espezifikoa.

Aldi honetan 485 jarduera kudeatu dira orotara. Horien artean, espazioak egokitzeko 162 jarduera, motore urritasuna duten ikasleentzako egokitutako garraio bekari lotutako 95 jarduera, ebakuazio neurri espezifikoaren 98 jarduera eta altzariak egokitzeko 98 jarduera nabarmendu ditzakegu. (13. taula).

Desgaitasunak dituzten ikasleen premien bilakaera, irisgarritasunean	12/1 3	13/1 4	14/1 5	15/1 6	16/1 7	GUZTIR A
Egokitutako garraio beka	22	19	16	21	17	95
Espazioen egokitzapena (sarbideak, ikasgelak, korridoreak, komunak, igogailuak...)	27	41	32	28	34	162
Altzarien egokitzapena	25	19	14	17	23	98
Aparkaleku erresebatua	11	5	2	1	2	21
Unibertsitateko egoitza egokituak	2	1	1	3	0	7
Orientazio espaziala	0	0	3	1	0	4
Ebakuazio neurri espezifikoa	16	16	18	25	23	98
Guztira	103	101	86	96	99	485

13. taula. Ikasle erroldatuen premien bilakaera, irisgarritasunaren arloan

3. Jarduera programen balorazioa

3.1. Informazio, aholkularitza eta orientazio ardatza

Desgaitasunak dituzten pertsonen arretarako programa, unibertsitatean sartzeko

Programa honen lehen helburua "desgaitasunak dituzten unibertsitate aurreko ikasleen erreferentziazko zentroekin komunikazio bideak finkatzea, unibertsitateko sarbideari eta sarrera probei buruzko orientazioa, informazioa eta aholkularitza" ematea zen. Honako jarduera hau planteatu zen: unibertsitate sartzeko probetan egokitzapenak eskatzeko prozedurari buruzko informazioa Berritzeguneei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ondoko Ikastetxeei eta Helduen Hezkuntza Ikastetxeei ematea.

Jarduera hori betetzeko asmoz, bilerak egin dira Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeekin; informazioa erraztu dugu eta ikastetxeetako orientatzaileei eta berritzeguneko

aholkularien artean Unibertsitatean sartzeko ikasleen arretarako Gida banatu da. Era berean, zerbitzuko web atarian eskuragarri jarri dugu informazio guztia.

Programaren bigarren helburua honako hau zen: unibertsitatera sartzeko probak egiteko, unibertsitate aurreko ikasleen premiak ebaluatzea eta beharrezkoak izango diren baliabideak kudeatzea. Helburua hiru jarduera hauei zegoen lotuta:



Telmo Iruretaren bakarrizketa, ikasle tituluduna, Desgaitasunen Nazioarteko Eguneko ekitaldia, 2017.12.15ean.

– Desgaitasunak dituzten unibertsitate aurreko ikasleen egokitzapen eskaerak kudeatzea, unibertsitatera sartzeko probetan.

– Sarrera probetako epaimahaikideei desgaitasunak dituzten ikasleen arretarako aholkularitza ematea.

– Informazioa, aholkularitza eta orientazioa ematea desgaitasunak dituzten ikasleek egin nahi dituzten tituluei buruz.

Jarduera horiek egiteko, ikasturte bakoitzean Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeek egokitzapen eskaerak egin dituzte GAUR aplikazioaren bidez; egokitzapenak kudeatzeko sarrera probetarako epaimahaikideekin koordinatu gara; ikastetxeko orientatzaileei informazioa eman zaie jarduera desberdinen bitartez; orientazio azoketan parte hartu dugu; bilera espezifikoak egin dira zentroekin; eta, telefonoz edo posta elektronikoz egindako galderei erantzun zaie.

Programa honetan adierazle hau finkatu zen: “ unibertsitatera sartzeko proben kudeaketan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko Ikastetxeen arduradunen eta epaimahaikideen gogobetetze mailari eustea”. Adierazlea ikasturte guztietan bete da, 2015-2016koan izan ezik, non batez bestekoa 0,14 puntu jaitsi baitzen; hurrengo ikasturtean gora egin zuen berriro.

Programaren helburuak, oro har, bete dira; izan ere, aurreikusitako lau jarduerak egin dira, eta adierazlea 2015-2016 ikasturtean ez beste ikasturte guztietan bete da (14. taula).

Desgaitasunak dituzten pertsonen unibertsitatera sartzeko arreta eskaintzeko programaren adierazleetan lortutako puntuazioak						
Adierazleak	Adierazlearen deskribapena	Emaitzak				
		2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
Unibertsitatera sartzeko proben kudeaketan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko Zentroen arduradunen eta epaimahaikideen gogobetetze mailari eustea.	Unibertsitatera sartzeko proben kudeaketa jardueretan eta epaimahaikideen gogobetetze inkestetan zerbitzuak lortutako batez besteko balorazioa	8,18	9,22	9,34	9,20	9,33
			Bete da Balorazioa +1,4 puntu igo da	Bete da Balorazioa +0,12 puntu igo da	Ez da bete Balorazioa - 0,14 puntu jaitsi da	Bete da Balorazioa +0,13 puntu igo da

14. taula. Desgaitasunak dituzten pertsonen unibertsitatera sartzeko arreta programaren adierazleetan lortutako puntuazioak

Desgaitasunak dituzten ikasle sartu berrientzako harrera programa

Programa horrek helburu hauek zeuzkan:

- Desgaitasunak dituzten ikasle berriei unibertsitateko bizitza errazteko eskaintzen zaizkien erakustea.
- Desgaitasunak dituzten ikasleen unibertsitateko erroldan sartzeko aukera ematea.

Horiek lortzeko, bi jarduera planteatu ziren:

- Desgaitasunak dituzten ikasle berriekin harremanetan jartzea, eskaintako zerbitzuei eta erroldan sartzeko prozedurari buruzko informazioa emateko.
- Informazioa ematea honako alderdi hauei buruz: eskubideak, arautegiak, ikasketen plangintza, baliabide teknikoak eta giza baliabideak, eta egokitzapenak aurreko irakaskuntzan, praktiketan eta azterketan.

Jarduerak egiteko, telefonoz hitz egin da ikasturte guztietan desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle berriekin, eta informazioa banatu da web atariaren eta hainbat dokumenturen bidez: gidak, aukera berdintasunerako araudia eta zerbitzuen karta.

Programa honetan adierazle hau ezarri zen: "zerbitzua harremanetan jartzea ikasle sartu berriekin, matrikula egiten duenetik, 45 eguneko epea igaro baino lehen". Helburua ongi bete da plana indarrean egon den ikasturte guztietan (15. Taula).

Programaren helburuak bete dira; izan ere, helburuei lotutako bi jarduerak egin, eta adierazlea bete da bost ikasturteetan).

Desgaitasunak dituzten ikasle sartu berrien harrera programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioa						
Adierazleak	Adierazlearen deskribapena	Emaitzak				
		2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
		31,30	40	23	22	23
Zerbitzua ikasle berriekin harremanetan jartzea 45 egun baino gutxiagoko epean, matrikula egiten den datatik.	Ikasle sartu berrien matrikularen eta lehen harremanaren arteko datak (batez bestekoa)		Bete da Batez bestekoa aurreko ikasturtekoa baino +8,50 egun okerragoa da	Bete da Batez bestekoa aurreko ikasturtekoa baino -17 egun hobe da	Bete da Batez bestekoa aurreko ikasturtekoa baino -1 egun hobe da	Bete da Batez bestekoa aurreko ikasturtekoa baino +1 egun okerragoa da

15. taula. Desgaitasunak dituzten ikasle sartu berrien harrerarako programaren adierazleen puntuazioak

Desgaitasunak dituzten ikasleentzako arreta programa, unibertsitatean dauden bitartean.

Programa honetan, lau helburu finkatu ziren:

- Unibertsitatean dauden bitartean desgaitasunak dituzten ikasleek izango dituzten premiak ebaluatzea eta horiek asetzeko baliabideak kudeatzea.
- Desgaitasunak dituzten ikasleei orientazioa, informazioa eta aholkularitza ematea beren eskubideei, unibertsitateak eskaintako zerbitzuei eta ikasketen plangintzari buruz.
- Unibertsitateko ikastegiei orientazioa, informazioa eta aholkularitza ematea, desgaitasunak dituzten ikasleen premiei buruz eta, batik bat, curriculumaren egokitzapen aukerei buruz.

- Desgaitasunak dituzten ikasleen gogobetetze maila ebaluatzea, zerbitzuak emandako laguntzari dagokionez.

Helburu horiek lortzeko, lau jardura hauek ezarri ziren:

- Desgaitasunak dituzten ikasleen datuak urtero eguneratzea, ikasturte bakoitzean titulua eskuratu duten eta ikasketak utzi dituzten ikasleak ere kontuan hartuta.
- Ikastegiei desgaitasunak dituzten ikasleen premien berri ematea, eta horiei erantzuteko aholkularitza eta laguntza eskaintzea.
- Irakaskuntza jardura ildoak zehaztea eta irakasleei banatzea, eta curriculuma egokitzeko aholkularitza ematea.
- Batzorde baten sorrera bultzatzea, premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarriak aintzat hartuta ikasketa plan berriek (GMHEE) nolako eragina izan duten aztertze aldera. Orain arte eginiko egokitzapenen erabilgarritasuna berrikusi, eta irakaskuntzarako metodologia inklusiboak aztertzea.



UPV/EHUko ikaslea, 2015ean Unibertsitate Inklusiboaren I. Kartel Lehiaketaren 3. saria jaso zuena.

Lehenengo hiru jarduerak egiteko, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen errolda, GAUR aplikazioaren laguntzaz egindakoa, berrikusi eta eguneratu da; unibertsitateko ikastegi guztietara ikasleen errolda eta Ikastegiko Gida bidali da eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen unibertsitateko ikastegi bakoitzarekin harremana mantendu eta bilerak egin ditugu; era berean Irakasleei irakaskuntzarako jardunbideen txostenak bidali zaizkie. Laugarren jardura ez da egin.

Programa honetan adierazle hau finkatu zen: “erroldatutako ikasleen gogobetetze mailari eustea, zerbitzuaren esku hartzeari dagokionez”. Helburua bi ikasturtetan bete zen, eta beste bitan ez; 2013-2014 ikasturtean, 8,15etik 7,80ra jaitsi zen, eta 2016-2017 ikasturtean 8,47tik 8,03ra (16 taula).

Programaren helburuak partzialki bete dira; izan ere, aurreikusitako lau jardueretatik hiru egin dira, eta adierazlea ez da bete 2013-2014 eta 2016-2017 ikasturteetan.

Desgaitasunak dituzten ikasleei unibertsitatean dauden bitartean arreta eskaintzeko programaren adierazleetan lortutako puntuazioak						
Adierazleak	Adierazlearen deskribapena	Emaitzak				
		2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
Erroldatutako ikasleen gogobetetze mailari eustea, zerbitzuaren esku hartzeari dagokionez.	Zerbitzuaren jardunaren eta ikasleen gogobetetze inkestaren emaitzaren batez besteko balorazioa	8,15	7,80	8,23	8,47	8,03
			Ez da bete Balorazioa - 0,35 puntu jaitsi da aurreko ikasturtetik	Bete da Balorazioa +0,43 puntu igo da aurreko ikasturtetik	Bete da Balorazioa +0,24 puntu igo da aurreko ikasturtetik	Ez da bete Balorazioa -0,44 puntu jaitsi da aurreko ikasturtetik

16. taula. Desgaitasunak dituzten ikasleei unibertsitatean dauden bitartean arreta eskaintzeko programaren adierazleetan lortutako puntuazioak

Laneratzeko programa.

Programa honetan, hiru helburu finkatu ziren:


- Desgaitasunak dituzten ikasleak laneratzeko laguntza ematea.
- Lana bilatzeko informazioa eta aholkularitza ematea.
- Desgaitasunak dituzten pertsonak laneratzearen alde lanean diharduten erakundeekin harremanetan jartzea.

Horiek lortzeko, lau jarduera finkatu ziren:

- Ikasle tituludunen datuak eguneratzea, urtero.
- Desgaitasunak dituzten ikasleei informazioa ematea lana bilatzeko laguntza iturriei buruz.
- Enpresek eta fundazioek desgaitasunak dituzten ikasle tituludunentzat bidalitako lan eskaintzetan bitartekari izatea.
- Laneratzearen alde lanean diharduten fundazio, elkarte eta enpresekiko lankidetzaren sendotzea.

Lau jarduerak egin dira. Horretarako, desgaitasunak dituzten ikasle egresatuen datu basea eguneratuta mantendu da; ikasturte bakoitzean titulaturako ikasleei laneratzeko baliabideei buruzko informazioa bidali zaie; bitartekaritza lanak egin dira lan eskaintzetan, beketan eta praktketan; hitzarmenak izenpetu dira desgaitasunak dituzten pertsonekin lanean diharduten hainbat erakunde eta fundazioekin (Lantegi Batuak, Adecco, Unibersia,

Gureak); eta, lankidetzan jardun dugu hainbat fundazioekin praktketako beka deialdien kudeaketan (Inserta- oportunidad al talento, Lehen Aukera, Santander-CRUE beka, ONCE-CRUE beka).



"Kirolaz haratago" argazki erakusketa, 2015ko abendua, Gipuzkoako campusaren Carlos Santamaria eraikina.

Programa honen adierazlea hau zen: "zerbitzuan jasotako lan eskaintzak desgaitasunak dituzten ikasle tituludunei astebete baino gutxiagoko epean bidaltzen zaizkiela bermatzea." Adierazlea ikasturte guztietan bete da (17. taula).

Programa honen helburuak bete dira; izan ere, helburuei lotutako lau jarduerak egin dira, eta adierazlea ikasturte guztietan bete da.

Laneratzeko programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak						
Adierazleak	Adierazlearen deskribapena	Emaitzak				
		2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
Zerbitzuan jasotako lan eskaintzak desgaitasunak dituzten ikasle tituludunei astebete baino gutxiagoko epean bidaltzen zaizkiela bermatzea.	Lan eskaintzak jaso eta ikasleei jakinarazi bitartean igarotako denbora (batez bestekoa).		Bete da Batez bestekoa – 1,25 egun jaitsi da	Bete da Batez bestekoa +2,5 egun igo bada ere	Bete da Batez bestekoa – 0,97 egun jaitsi da	Bete da Batez bestekoa +2,01 egun igo bada ere
		3,25	2	4,50	3,53	5,54

17. taula. Laneratze programaren adierazlearen puntuazioak

3.2. Aukera berdintasunen ardatza

Giza baliabideak kudeatzeko programa

Programa honetan, helburu hau finkatu zen: “laguntza pertsonala ematea, desgaitasunak dituzten ikasleei jarduera akademikoak eskura jartzen eta horietan parte hartzen laguntzeko”. Helburua lortzeko, berriz, hiru jarduera hauek proposatu ziren:

- Laguntza pertsonalaren beharra banaka ebaluatzea, eta kasu bakoitzari baliabide egokia esleitzea.
- Laguntza langileen lana antolatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea, haien harrera eta jarraipena eginez.
- Desgaitasunak dituzten ikasleei laguntzeko programaren barruan koordinatzea, parekoen arteko laguntza taldeak antolatzeko.



Telmo Iruretaen “Toquecito Minus” bakarrizketa, Izaskun Heras saria eta Unibertsitate Inklusiboaren Kartel Lehiaketaren sariak banatzeko ekitaldia, Arabako Campusa, 2017ko abendua.

Hiru jarduerak egin dira. Ezgaitasun egoera baloratu da kasu partikular bakoitzean; horretarako, ikasleekin eta haien senideekin egindako bileretan informazioa bildu da, eta harremanetan egon gara haien jatorrizko bigarren hezkuntzako zentroekin eta hainbat erakunderekin (Apnabi, Gautena, Adahigi, Ahida, ...). Ikasturte bakoitzean, koordinazio bilerak egin dira langileekin, lanak planifikatzeko eta horien jarraipena egiteko. Era berean, ikasturte bakoitzean, ikasleentzako boluntarioritza programa bat garatu da; horren bidez, kredituak aitortzen zaizkie ikasleei, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituen ikasleentzako apunteak hartzen laguntzeagatik edo mugikortasun urriko ikasleei joan-etorrietan laguntzeagatik.

Programa honetan adierazle hau finkatu zen: “laguntzarako langileen hornidura bermatzea ikasturte hasieran, uztaila amaitu aurretik eginiko eskaerei erantzuteko”. Adierazlea ikasturte guztietan bete da (18. taula)..

Programa honen helburuak bete dira; izan ere, helburuei lotutako hiru jarduerak egin dira, eta adierazlea ongi bete da ikasturte guztietan.

Giza baliabideak kudeatzeko programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak						
Adierazleak	Adierazlearen deskribapena	Emaitzak				
		2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
Laguntzarako langileen hornidura bermatzea ikasturte hasieran, uztaila amaitu aurretik eginiko eskaerei erantzuteko.	Zenbat baliabide jarri dira ikasturte hasieran, uztaila amaitu aurretik eskatu direnean. (Giza baliabideen – laguntza langileak-eskaera data eta baliabideen hornidura data).	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
			Bete da	Bete da	Bete da	Bete da

18. taula. Giza baliabideak kudeatzeko programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak

Baliabide teknikoak kudeatzeko programa

Programa honi bi helburu esleitu zitzaizkion:

- Desgaitasunak dituzten ikasleei baliabide teknikoak ematea, curriculumera aukera berdintasunez sar daitezen.
- Erabiltzailearen gaitasunak bultzatzea laguntza teknikoen erabileraren bidez.

Horiek lortzeko, lau jarduera finkatu ziren:

- Desgaitasunak dituzten ikasleek eskatzen edo behar dituzten laguntzak hautematea eta ebaluatzea, haien ezaugarriak aintzat hartuta.
- Desgaitasunak dituzten pertsonen elkarteekin harremanetan egotea, gaur egungo tresna teknologikoak eta elkarte horiek eskura dituzten laguntzak ezagutzeko.
- Desgaitasunak dituzten pertsonen lotutako erakundeekin eta elkarteekin koordinatzea, beharrezkoak diren bitartekoak eskuratzeko.
- Baliabideak eskuratzeko, ikastegiarekin eta zerbitzuarekin koordinatuta.

Aurreikusitako jarduera guztiak egin dira. Desgaitasun egoera baloratu da kasu partikular bakoitzean; horretarako, ikasleekin eta haien senideekin egindako bileretan informazioa bildu da, eta harremanetan egon gara haien jatorrizko bigarren hezkuntzako zentroekin. Premien arabera, harremanetan egon gara hainbat erakunderekin (ONCE, Aransgi, Ulertuz, ...) planaren indarraldi osoan, bai laguntza produktuei buruzko informazioa lortzeko, bai ikasleentzako beharrezkoak diren produktuak lortzeko, hainbat kasutan. Beharrezko gisa baloratutako laguntza produktu guztiak unibertsitate ikastegiaren edo Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzaren bidez hornitu dira, eta jaso dugu ere Unibersia Fundazioaren laguntza produktuen bankuaren lankidetzan.

Programa honetan, adierazle hau finkatu zen: "laguntzarako langileen hornidura bermatzea ikasturte hasieran, uztaila amaitu aurretik eginiko eskaerei erantzuteko". Adierazlea ongi bete da ikasturte guztietan (19. taula).

Hortaz, programa finkatutako helburuak bete dira; izan ere, helburuei lotutako hiru jarduerak egin, eta adierazlea bete da ikasturte guztietan.

Baliabide teknikoak kudeatzeko programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak						
Adierazleak	Adierazlearen deskribapena	Emaitzak				
		2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
Baliabide teknikoen hornidura bermatzea ikasturte hasieran, uztaila amaitu aurretik egindako eskaeretatik (Baliabide teknikoaren eskaera data eta baliabideen hornidura data)		% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
			Bete da	Bete da	Bete da	Bete da

19. taula. Baliabide teknikoak kudeatzeko programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak.

3.3. Prestakuntza eta sentsibilizazio ardatza

Ardatz honek hornidura ekonomiko bat eduki du "II. Inklusio Planaren prestakuntza eta sentsibilizazio programak garatzeko eta III. Inklusio Plana (2018-2023) egiteko programa kontratuaren" bitartez, eta horrek ikasleak sentsibilizatzeko eta irakasleei hezkuntza inklusiboari buruzko prestakuntza emateko aukera eman digu.

Sentsibilizazio programa

Programa honetan, lau helburu finkatu ziren:

- Desgaitasunei buruzko informazioa ematea.
- Unibertsitateko kideei arau praktikoak ezagutaraztea desgaitasunak dituzten pertsonetara bizikidetzara errazteko, eta arauok erabiltzeko eta errespetatzeko sentsibilizazioa lantzea.
- Aniztasunari buruz sentsibilizatzea, gizarte balio bat den neurrian.
- Unibertsitateko kideak sentsibilizatzea, desgaitasunak dituzten pertsonen hezkuntza eta gizarte inklusioan lagundu eta parte har dezaten.

Helburu horiek lortzeko, honako jarduerak hauek aurreikusi ziren:

- Desgaitasunei buruzko informazioa sartzea, UPV/EHUko ikasleentzako materialetan.
- Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren webgunea eguneratuta edukitzea.
- Unibertsitateko kideak informatzeko materialak sortzea.
- Unibertsitateko kideak sentsibilizatzeko jarduerak antolatzea, elkarrekin lankidetzan.



UPV/EHUko ikaslea, Unibertsitate Inklusiboaren I. Kartel Lehiaketaren irabazlea.

Lau jarduerak egin dira. Zerbitzuari buruzko informazioa eman da ikasle berrien matrikulan entregatutako karpetan, UPV/EHUra Sartzeko Gidaliburuan eta hainbat webgunetan, hala nola ikasleena, etorkizuneko ikasleena eta Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuarena.

Zerbitzuaren webgunea eguneratuta eduki da, eta, web gestorearen aldaketaz baliatuta, orriaren eduki guztiak eta egitura berrantolatu dira, eta eduki berriak txertatu dira, esate baterako, Ikusmiran, EhuZeinu, irakaskuntzan laguntzeko materialak, etab.

Hainbat dokumentu argitaratu eta zabaldu dira: unibertsitate kolektiboentzako informazio gidak, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuari buruzko informazio triptikoak, daktilologia hiztegia eta orri markagailuak; horrez gain, "Unibertsitate inklusiboa" kartel lehiaketa irabazi duten kartelen difusioa egin da.

Era berean, erakusketa ugari egin dira (Down Clown, kartelen lehiaketara aurkeztutako hainbat obraren aukeraketa, etab.), eta bestelako jarduerak antolatu izan dira ere ezgaitasunen nazioarteko egunaren harira (hitzaldiak eta jardunaldiak, kirol egokitura hurbiltzeko saioak..).

Programa honen adierazlea hau zen: "erabiltzaileei eginiko inkestetan puntuazioa hobetzea, zerbitzuaren aurkezpenaren pertzepzioan: zerbitzuaren ezagutza, zerbitzua eskuratzea eta zerbitzuaren materiala". Adierazlea ikasturte guztietan bete da, eta puntuazioa pixkanaka joan da igotzen 12-13 ikasturtean izandako 7,44tik 16-17 ikasturtean lortutako 8,27ra (20. taula).

Hori dela eta, programa honen helburuak bete dira; izan ere, helburuei lotutako lau jarduerak egin dira, eta adierazlea ikasturte guztietan bete da.

Sentsibilizazio programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak						
Adierazleak	Adierazlearen deskribapena	Emaitzak				
		2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
Erabiltzaileei eginiko inkestetan puntuazioa hobetzea, zerbitzuaren aurkezpenaren pertzepzioan: zerbitzua ezagutzea, zerbitzua eskuratzea eta zerbitzuaren materiala.	Zerbitzuko difusioaren batez besteko balorazioa ikasleen, zentron eta USPen izandako esku hartzearen gogobetetze inkestetan (aurkezpen atala).	7,44	7,82	8,08	8,18	8,27
			Bete da Batez beste +0,38 puntu hobetu da	Bete da Batez beste +0,26 puntu hobetu da	Bete da Batez beste +0,10 puntu hobetu da	Bete da Batez beste +0,09 puntu hobetu da

20. taula. Sentsibilizazioa kudeatzeko programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak

Prestakuntza programa

Programa honetan hiru helburu finkatu ziren:

- Unibertsitateko kide guztientzako prestakuntza ekintzak bultzatzea, desgaitasunak dituzten ikasleen errealitatea ezagutzeko eta talde horrenganako jarrera positiboak eta enpatia bultzatzeko.
- Irakasleak prestatzeko ekintza espezifikoak bultzatzea, irakats metodologia inklusiboak erabiltzea ahalbidetuko dieten tresnak eskura ditzaten.
- Espainiako unibertsitateetan, desgaitasunak dituzten pertsonen arretarako dauden programen eta unitateen sarean parte hartzea eta laguntzea.

Helburu horiek lortzeko, lau jarduera ezarri ziren:

- Prestakuntza jarduera espezifikoak antolatzea irakasleentzat, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuarekin eta Irakaskuntza Kalitate eta Berrikuntzarako Errektoreordetzarekin lankidetzan.
- Desgaitasunei buruzko prestakuntza ekintzak antolatzea unibertsitateko kide guztientzat.
- Unibertsitateko kideen prestakuntzarako materialak sortzea.
- Elkarteekin lankidetzan jardutea, prestakuntza ikastaroak diseinatzeko.

Irakasleentzako prestakuntza jarduera espezifikoak antolatzen jarduerari dagokionez, irakasle-ikertzaileentzako hainbat ikastaro diseinatu eta eman dira, eta "Irakasleen prestakuntza inklusiborako plan baterako oinarriak" dokumentua prestatu da, programa kontratuaren esparruan.

Beste hiru jarduerak egiteari begira, ikasleentzako zeinu hizkuntzen ikastaroak egin dira, baita administrazio eta zerbitzuetako langileentzako (AZP) ikastaroak ere, "Jardunbide egokiak eta ezgaitasuna" eta "Gorrekina komunikatzeko estrategiak" gaiei buruz. Halaber, "mintzo diren eskuak" izeneko prestakuntza kapsula argitaratu da. Horretarako lankidetzan jardun dugu hainbat erakunderekin (Ulertuz, Euskalgorrak, Urtxintxa, Vía libre -Fundosa-).

Programa honen helburuen eta jardueren betetze maila neurtzeko, bi adierazle hauek finkatu ziren:

- Ikasturte bakoitzean irakasleentzako prestakuntza espezifikoko ikastaro bat eskaintzea, gutxienez.
- Zerbitzuak kolektibo horrentzat bultzatutako prestakuntza ikastaroak jendaurrean lanean diharduen AZPko langileen %5ek egitea urtero. Irakasle-ikertzaileen prestakuntzari lotutako lehen adierazlea ongi bete da ikasturte guztietan. AZPko langileen prestakuntzari dagokionez, ordea, ezin izan dugu neurtu, ezin izan dugulako lortu lana jendaurrean egiten duten AZPko langileen ehunekoa. Edonola ere, plana indarrean egon den bitartean, 18 ikastaro eman dira, eta 165 pertsonak hartu dute parte (21. taula).



"GOALBALL" erakustaldia, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak, UPV/EHUko Kirol Zerbitzuak eta "Itxaropena" Ikusmen urriko pertsonen Arabako elkarteak Gasteizen antolatutakoa, 2015eko abenduaren 3an.

Programaren helburuak bete dira, lau jarduerak egin baitira. Horrez gain, irakasle-ikertzaileen adierazlea bete da.

Prestakuntza programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak						
Adierazleak	Adierazlearen deskribapena	Emaitzak				
		2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
1. Zerbitzuak kolektibo horrentzat bultzatutako prestakuntza ikastaroak jendaurrean lanean diharduen AZPko langileen %5ek egitea urtero. Ikasturte bakoitzean irakasleen prestakuntza espezifikorako ikastaro bat eskaintzea gutxienez.	AZPko langileei eta irakasle-ikertzaileei eskaintutako ikastaroen kopurua	AZPko langileak: Ezin da neurtu IRI: 0	AZPko langileak: Ezin da neurtu IRI: 2	AZPko langileak: Ezin da neurtu IRI: 4	AZPko langileak: Ezin da neurtu IRI: 5	AZPko langileak: Ezin da neurtu IRI: 4
		Bete da irakasleen partea AZPko langileen parte ezin da neurtu	Bete da irakasleen partea 2-4 ikastaro artean AZPko langileen parte ezin da neurtu	Bete da irakasleen partea 4-5 ikastaro artean AZPko langileen parte ezin da neurtu	Bete da irakasleen partea 5-4 ikastaro artean AZPko langileen parte ezin da neurtu	

21. taula. Prestakuntza kudeatzeko programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak

3.4. Irisgarritasun unibertsaleko ardatza

Irisgarritasun eskaerei erantzuteko programa

Programa honetan helburu hauek ezarri ziren:

- Obra edo hobekuntza behar duten eskaerak jasotzea, izapidetzea eta horien jarraipena egitea, campuseko gerenteordetzek horretarako eginiko jarduera protokoloaren arabera.
- Unibertsitateko garraiobideen irisgarritasuna erraztea.
- Unibertsitate ikastegiek desgaitasunak dituzten pertsonentzako jarduera protokolo espezifiko bat edukitzea larrialdi kasuetarako, UPV/EHUko prebentzioaren kudeaketa sistemaren larrialdiak kudeatzeko prozeduraren 6. eranskinean jasotakoari kasu eginez.

Helburu horiek lortzeko, hiru jarduera zehaztu ziren:

- Organo eskudunei dauden oztopoak berri ematea.
- Arian-arian oztopoak kentzen joatea.
- Oztopo horien egoeraren jarraipena egitea.

Jarduera guztiak egin dira, jasotako irisgarritasun eskaera guztiak izapidetuta, eta, horrez gain, irisgarritasun planak daude campus guztietan, zeinetan eraikin bakoitzaren eta campus bakoitzaren irisgarritasun egoeraren diagnostiko xehe bat egiten baita.

Programa honetan adierazle hau finkatu zen: "konpondutako premien ehunekoa, desgaitasunak dituzten ikasleen berehalako premien arabera". Adierazlea ikasturte guztietan bete da. (22. taula).

Programa honen helburuak bete dira; izan ere, helburuei lotutako hiru jarduerak egin dira, eta adierazlea ikasturte guztietan bete da.

Irisgarritasun eskaerei erantzuteko programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak						
Adierazleak	Adierazlearen deskribapena	Emaitzak				
		2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
2. Asetako premien ehunekoa, desgaitasunak dituzten ikasleen berehalako premien arabera.	Aurkeztu eta izapidetutako irisgarritasun eskaera kopuruaren bilakaera	% 100	-	% 100	% 100	-
			Ikasturte honetan ez da eskaerarik aurkeztu	Bete da	Bete da	Ikasturte honetan ez da eskaerarik aurkeztu

22. taula. Irisgarritasun eskaerei erantzuteko kudeaketa programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioak

Arkitektura eta komunikazio irisgarritasunerako programa

Programa honetan, helburu hau finkatu zen: "UPV/EHUko espazioak eta informazioa eskura izateko irisgarritasun unibertsala bermatzea, irisgarritasunaren arloan hobekuntza ekintzak egiteko esparrua izango den irisgarritasun plan baten bidez". Helburua lortzeko lau jarduera finkatu ziren:

- Desgaitasunak dituzten pertsoneri Irisgarritasun Planaren hobekuntza ekintzei buruzko informazioa ematea.
- Campusetako gerenteordetzekin lankidetzan jardutea, Planean jasotako irisgarritasun ekintzen lehentasunak finkatzeko, desgaitasunak dituzten ikasleen egiazko premietan oinarrituta.
- UPV/EHUn eginiko jardueren jarraipena egitea, informazioaren eskuragarritasunaren esparruan.
- Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetzarekin lankidetzan jardutea, informazioaren eskuragarritasunari lotutako ekintzak lehenesteko, desgaitasunak dituzten ikasleen egiazko premietan oinarrituta.

Programa honetan planteatutako jarduerak ez dira egin edo partzialki egin dira. Desgaitasunak dituzten pertsoneri ez zaie informazioa eman irisgarritasun planaren hobekuntza ekintzei buruz. Irisgarritasun jarduerak lehenesteko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren eta campuseko gerenteordetzen arteko lankidetzari dagokienez, harremanetan egon gara campusetako gerenteordetzekin lankidetzara eskaintzeko eta unibertsitate ikastegietan informazioa emateko eskatzeko; dena dela, ez dira protokoloak ezarri gerenteordetzekin, planaren ekintzen jarraipena egiteari begira. Gipuzkoako Campusean, hainbat bilera egin dira jardueren lehentasuna ezartzeko, II. Inklusio Plana indarrean egon den ikasturteetan; Bizkaiko Campusean, berriz, soilik 2016-2017 ikasturtean egin da. Ez da ezarri protokolorik IKTen Gerenteordetzarekin, infoeskuragarritasunaren hobekuntzaren jarraipena egiteko, baina lankidetzan jardun dugu IKTen infoeskuragarritasun programa kontratuaren barruan, aholkularitza eman baitugu lazo inductiboak erosteko eta liburutegietarako zoom text lizentziak eskuratzeko. Era berean, lankidetzan jardun dugu IKTen Gerenteordetzarekin zerbitzuaren webgunean ahots sintetizadore bat instalatzeko.

Programa honen adierazlea hau zen: "irisgarritasuna hobetzeko jarduerentzako aurrekontuaren betetze ehuneko". Adierazlea ezin izan da neurtu ikasturte bakar batean ere, ezinezkoa izan baita behar ziren datuak eskuratzeko.



"Gogoeta egiteko txokoa" ekitaldia, Gipuzkoako Campusaren Carlos Santamaria eraikina, Desgaitasunaren Nazioarteko Eguna, 2015eko abenduaren 3a

Programa honetarako finkatutako helburua ez da bete; izan ere, jarduera bat egin da, beste bat ez da egin, eta gainerako biak partzialki egin dira. Gainera, adierazlea ezin izan da ikasturte bakar batean neurtu, daturik ez genuelako. (23. taula).

Arkitektura eta komunikazio irisgarritasunerako programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioa						
Adierazleak	Adierazlearen deskribapena	Emaitzak				
		2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
3. Irisgarritasuna hobetzeko jarduerentzako aurrekontuaren betetze ehunekoa	Irisgarritasuna hobetzeko jarduerentzako aurrekontuaren betetze ehunekoa	-	-	-	-	-
		Ezin dira datuak lortu	Ezin dira datuak lortu	Ezin dira datuak lortu	Ezin dira datuak lortu	Ezin dira datuak lortu

23. taula. Arkitektura eta komunikazio irisgarritasunerako programari esleitutako adierazleetan lortutako puntuazioa

4. Balorazio orokorra

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuko erroldan, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle kopurua 278 ikaslekoa zen 2012-2013 ikasturtean, eta 309 ikaslekoa izatera iritsi da, UPV/EHUren II. Inklusio Planaren (2012-2017) indarraldiaren amaieran, azken bi ikasturteetan iagoera nabarmena izanda. Aldi horretan, 210 ikaslek lortu dute titulua.

II. Planaren helburu orokorrak bete dira. Ostera, 10 programen helburu espezifikoetarako dagokienez, 8 programetan helburuak ongi bete dira, baina unibertsitatean dauden bitartean desgaitasunak dituzten ikasleen arretarako programaren helburuak soilik partzialki bete dira, eta irisgarritasun unibertsaleko programakoak ez dira bete.

Aldi honetan, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua finkatzeko pausoak eman dira, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen arreta bermatu baita, urteko inkestetan adierazitako ikasleen gogobetetze maila altuari eutsita. Prestakuntza eta sensibilizazio ardatza bultzatu da, programa kontratutik jasotako finantzaketaren bidez, eta, horren barruan, lanean ari gara irakasleen prestakuntza espezifiko bultzatzeko, azken urteetan nabarmendu den gabezia baita.



Bilboko Irakasleen Unibertsitate (Leioa) Eskolan 2015eko abenduaren 2an unibertsitate inklusiboari buruz egindako saioko parte hartzaileak.



Goalball: inklusiorako kirol bat. Parte hartzaile bat, azaroaren 26an Bizkaiko Campusean (Leioa) egindako saioan.

4.1. Gaur egungo egoeraren diagnostika

Gogoetaren abiapuntua UPV/EHUren II. Inklusio Planean ezarritako helburuen betetze mailari buruzko balorazioa izan da. Egungo egoeraren diagnostikoa egiteko, AMIA analisia egin da, eta haren helburua da ahultasunak identifikatzea eta III. Planaren ildo estrategikoak gidatuko dituzten indarguneak finkatzea.

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakasleen informazio gabezia, alderdi hauei buruz: <ul style="list-style-type: none"> ○ Ikasleen egokitzapen premiei erantzuteko jarduera prozedura. ○ Zerbitzua beste ikastegiekin koordinatzeko protokola. ○ Hezkuntza premia berezien ikastegiko arduraduna. ▪ Zerbitzuak irakasleei eskatutako egokitzapenen aplikazioaren gaineko jarraipena egitea falta da. ▪ Irakasle-ikertzaileek informazio urria dute ezgaitasunei, hezkuntza premia bereziei, hezkuntza inklusioari eta unibertsitate ikasketetan aplikatutako irisgarritasun unibertsalari buruz. ▪ Irakats material gutxi dago ikasle guztien esku. ▪ UPV/EHUko webgunearen irisgarritasun eskasa. ▪ Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren eta campusetako gerenteordetzen arteko koordinazio eskasa, campusetako irisgarritasun planen jarraipenerako. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Planifikazio eta kudeaketa tresnak: UPV/EHUren Inklusio Plana eta zerbitzuen karta, eta egokitzapen eskaerak kudeatzeko euskarri informatikoa (GAUR). ▪ Dokumentazioa eta araudiak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Aukera berdintasunaren araudia, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen arretarako. ○ UPV/EHUren desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen arretari buruzko informazio gida espezifikoak. ○ "Irakasleen prestakuntza inklusiborako plan baterako oinarriak" dokumentua. ○ Irakasle-ikertzaileentzako Jardunbide Egokien Gida. ▪ Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren unitateak, hiru campusetan. ▪ Programa kontratutik jasotako finantzaketa, II. Inklusio Planaren prestakuntza eta sentsibilizazio programak garatzeko. ▪ Unibertsitate campusetako irisgarritasun planak. ▪ Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak koordinazio egonkorra dauka unibertsitateko ikastegiekin eta zerbitzuekin, baita Bigarren Hezkuntzako orientazioko nahiz laguntzako zerbitzuekin eta zentroekin ere. ▪ Lankidetzaren hezkuntzaren eta ezgaitasunen arloko erakunde eta entitateekin. Parte hartzen da haiek antolatutako ekitaldi eta jardura askotan. ▪ Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuko erabiltzaileen gogobetetze maila handia.
MEHATXUAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dago nahikoa gizarte baliabiderik ezgaitasunak dituzten pertsonen behar espezifikoari egoki erantzuteko, edo dauden laguntzak ez dira egokitzen. ▪ Garraio sistema publikoaren gabeziak eta urritasunak, mugikortasun urriko pertsonen lekualdaketen segurtasunari eta funtzionalitateari dagokionez. ▪ Desgaitasunak dituzten pertsonen langabezia ehuneko handia, oro har langabezia eta ezegonkortasuna nagusi den eta lan merkatuan aldaketa estrukturalak ematen ari diren testuinguru batean. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizartearen sentsibilizazio maila handiagoa, inklusioari dagokionez. ▪ Inklusioaren onarpena, hezkuntza kalitatearen adierazle gisa. ▪ Desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko teknologien garapena. ▪ Desgaitasunari buruzko Europako Estrategiaren (2010-2020) garapena. ▪ Desgaitasunak dituzten ikasleen hezkuntza inklusiorako foroaren sorrera. ▪ Unibertsitateen arloan Instrukziorako Diseinu Unibertsalaren (IDU) garapen teorikoa eta difusioa unibertsitateetan. ▪ SAPDU sarearen finkapena eta EUEBK bultzatutako dibertsitatearen arretarako programen garapena. ▪ Unibertsitate titulu guztietarako eta pertsona guztientzako curriculum prestakuntzako giden pixkanakako elaborazioa eta difusioa.